



**2010EKO AZAROAREN 17KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko azaroaren hamazazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte eta Amagoia Naldaiz Mingo zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2010eko urriaren 13an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 11 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAIIKA EURO eta ZENTIMO BAT (130.811,01,-)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 09-11-008 zbk.dun esped.: baja heriotzagaratik 2010eko urriaren 8an.
- 10-11-007 zbk.dun esped.: baja heriotzagaratik 2010eko urriaren 10ean.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 09-01-019 zbk.dun esped.: alokairuko gastuak ordaintzeko hilean 320 €ko dirulaguntza ematea irailetik hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Telealarma.-

- 10-12-001 zbk.dun esped.: baja heriotzagaratik 2010eko urriaren 8an.

- 10-12-009 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzua jartzea. Telealarmaren instalazioak 81,79 €ko kostua du eta mantenimendu gastua urtean 87,14 €koa da. Onuradunak zerbitzu kostuaren %100 ordainduko du.

- 10-12-010 zbk.dun esped.: ondorengo dirulaguntza ematea: telealarma instalaziorako 61,35€ eta mantenimendu gastuetarako urtean 65,36 €. Ematen zaiona kostuaren %75 da.

Drogomenpekotasunak-garraiorako laguntzak.-

- 10-14-003 zbk.dun esped.: garraioko laguntzetatik baja ematea, Gizakia Helburuko programaren amaitzeagatik.

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

- Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkarteari, IV. Goierri Beheko 8 udalen pelota txapelketaren antolakuntzarako egindako dirulaguntza eskaera ikusirik, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, berrehun eta berrogeita hamar euro (250 €) ematea erabakitzen du.

- Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkartek San Mioletako eskolaume eta helduen esku pelota txapelketaren antolaketarako egindako dirulaguntza eskaera ikusirik, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, berrehun eta berrogeita hamar (250 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

- Jose Bolinagak, Txindoki Atletismo taldearen izenean "Josetxo Imazen oroimenezko X. Lasterketa"ren antolaketan izandako gastuei aurre egiteko egindako dirulaguntza eskaera ikusirik, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zazpiehun (700 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

- Juan Joxe Etxeberria Zalduak, uztailleko asteburuetan Lazkaon egindako "Joxe mari Ke-rejetaren oroimenezko VI. Pala Txapelketa"ren antolaketarako egindako dirulaguntza eskaera ikusirik, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, berrehun eta berrogeita hamar (250 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

Kirol taldeei dirulaguntzak

2010eko ekitaldian udalerriko kirol taldeei ematekoak diren dirulaguntzen inguruan udalaren kirol batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

| <u>KIROL TALDEA</u> | <u>DIRULAGUNTZA</u> |
|---------------------|---------------------|
| Futbol taldea | 6.903,00 € |
| Pelota taldea | 1.922,00 € |



| | |
|--------------------------|------------|
| Igeriketa taldea | 268,00 € |
| Areto futbol gizonekoena | 1.010,00 € |
| Atletismo taldea | 878,00 € |
| Mendi taldea | 866,00 € |
| Txirrindulari elkarte | 158,00 € |

GUZTIRA **12.005,00 €**

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Lazkaoko Merkatarien Elkartek egindako Benito Lertxundiren Kantaldi antolaketa dela eta, Kultura Batzordetik egindako dirulaguntza proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, lau mila eta hogeita hamar (4.030 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

